

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroa eta EAEko Ogasun kontseilariak Gasteizen bildu dira

*Bi lurraldeen erregimen ekonomiko-finantzario espezifikokoak babesteko beharra agertu dute Aranburu eta Gatzagaetxebarria kontseilariak*

Viernes, 26 de febrero de 2016

Mikel Aranburu, Nafarroako Gobernuko Ogasun eta Finantza Politikako kontseilaria, eta Ricardo Gatzagaetxebarria, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailburua gaur bildu dira Gasteizen, Eusko Jaurlaritzak Lakuan duen



Aranburu eta Gatzagaetxebarria kontseilariak.

egoitzan. Topaketan, bi gobernuen arteko komunikazioa eta harremana ezartzeko beharra egiaztatu dute bi politikariek, Ekonomia Ituna nahiz Hitzarmen Ekonomikoa kritiketatik eta tentazio uniformizaitzetatik babesteko, eta horiek etengabe gaurkotzearen aldeko apustua egiteko.

Era berean, Euskadiko eta Nafarroako erregimen ekonomiko-finantzario espezifikokoak babesteko beharra ere agertu dute kontseilari biek. Halaber, balioan jarri dituzte Estatuarekiko aldeko harremanak, "foru ereduaren solidaritatea eta Estatuarekiko harremanen trataera hitzartua".

Bestalde, Ogasun sailburuak bat etorri dira aurrekontu publikoak eta programazio ekonomikoa politika ekonomikorako tresna gisa erabiltzeko ideiarekin, suspertze ekonomikoa eta enpleguaren sorrera, besteak beste, modu iraunkorrean haz daitezten.

Aranburu eta Gatzagaetxebarria etorkizunean lankidetzan jarraitzeko nahia agertu dute, "arrakastatsutzat" jo duten topaketa honen ondoren.